

PATXI HUARTE LARRABURU "ZALDIEROA"
ALTZA PORRUZ:

"Jakobita nintzen Jakobitak ezagutu aurretik"



Garazi Zabaleta

@tirikitran

ARGAZKIA: DANI BLANCO

Baratzegintzaz dakizun guztia zortzi orrialdetan sartu duzu *Altza Porrun*. Asko-asko ere ez zenekien orduan, ezta?

Bada, ez. Gutxi dakit eta gainera dakidan apurra segituan ahazten dut. Gogoratzen naiz amari galdetu niola baratxuriak nola erein behar ziren eta berak erantzun. Handik bi egunetara baratze-tik deitu nion, baratxuriak eskuan, ea pikua behera zen edo aldrebes. Desastre!

Zerk elkartzen ditu Faltzes, Aranzadi, Lezo, Abaurregaina, Twitter, Etxauri eta Txantrea?

Hori da nire bizitzaren mapa, edo "lutelestia" (*Txikitako Mundu osoaren lutelestia* liburua gogora ekarriz). Nire geografia ez da mundu osoarena, mapa txikiagoan bizi izan naiz ni.

Baratzeak, autobiografikoa izateaz gain, ligatzeko ere balio duela diozu...

Beno, txiste moduan jarri nuen, baina egia da. Fun-tsean, zure baratzeraren etortzen denak izango duen inpresioa oso ona da: "Aiba! Ze polita!". Noski: badira fruituak bazkari oparoak

egiteko edo errezeta mundialak osatzeko, eta beraz Pavloven txakurren antzera, sartu orduko listua produzitzen hasten dira bisitariak eta plazerarekin lotzen zaituzte orduan eta konturatzen dira zurekin ez direla gosez hilko eta... Beno... Hortik afarria gehi ohea ideiarra astebete dago!

***Altza Porrun* parte hartuz "Jakobita lurza-leen sektarekin" egin duzu bat. Ez al du horrek gehiago erotuko Zaldieroa?**

Ni beti izan naiz Jakobita. Beste planetan bizitza bilatu beharrean bertako bizitzarekin flipatu egin dut beti. Deigarriagoa egiten zait kalabaza bat nola hazten den ikustea Marten bakterio batzuk aurkitzea baino. Sistema osoa zirrargarria da: nola kalabazak ura metatzen duen, nola guk gero kalabazaren propietateak hartzen ditugun, hondakinak konpostan, konpostetik lurra, lurretik kalabaza. Izugarria da! Jakobita nintzen ni Jakobitak ezagutu aurretik.

Zer iruditu zaizu Asiskok egileen aurkezpenean egin dizun barazki-karikatura?

Oso ona. [Eta segidan *Altza Porru* liburuaren bila joan da karikatura gogoan ez zuelako] Hara! Piper horia.

Oso ona. ■



ALTZA PORRU

Irribarrearen baratzea

Marrazkilariak:

Asisko, Unai Iturriaga, "mattin" Martiarena, Ainara Azpiazu, Antton Olariaga, Zaldieroa, Unai Gaztelumendi, Joseba Larratxe

Salneurria: 19,50 € · Harpideentzat: 18 €



BIZI BARATZEA

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Bloga: www.argia.eus/bizi-baratzea

@bizibaratzea

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €

Liburuen eskaerak:

☎ 943 371 545 · www.argia.eus/denda

AURKEZPEN HITZALDIAK

Azaroak 23: Larraul

19:00etan Kultur Etxean, *Bizi Baratzearen* aurkezpene eta kontsultategia.

ANTOLATU HITZALDIA ZURE HERRIAN

sustapena@argia.eus · ☎ 943 371 545